Maite Frankoren errepertorioak

Repertorios de la narradora Maite Franko

Kontratazioak: 686.686.094

maitefranko@hotmail.com

"Isilka Misilka, isiltasunaren zaindaria"

/ "Isilka Misilka, la guardiana del silencio."



(Liburutegi, liburuzain eta beste zenbait isiltasunaren maitaleri buruzko ipuinak)./
(Cuentos sobre bibliotecas, bibliotecarias y otros seres amantes del silencio)

- **Noizko:** apirilak 2 (haur liburuaren eguna), apirilak 23 (liburuaren eguna), urriak 24 (liburutegien eguna); edo bestela.
- **Sugerido para**: / 24 de octubre (día de la biblioteca), 2 de abril (día libro infantil); 23 de abril (día libro); o cualquier otro.

SINOPSIA: Zer behar du liburutegi batek? Liburuak, irakurleak, isiltasuna eta isiltasunaren zaindaria. Sinplea dirudien arren, *Zaratamerke* herrian gehiegizkoa da, hango biztanleak oihuka mintzo eta bizi baitira. Herri zaratatsu hartara iritsiko da ipuin honetako protagonista den Isilka Misilka. Isilka emakume isila eta isiltasun zaleari baino ez zaio bururatuko zarataren erresuma hartan liburutegi bat jartzearen ideia xelebrea. Eta hau gutxi balitz, gainera, elkarri entzuten ez dioten *Zaratamerke*

herri honetan, ipuin-kontaketa saioak antolatzea ere otuko zaio Isilkari. Ezer onik lortuko ote du isiltasunaren heroiak?

Hari nagusi honi, protagonistak kontatuko dituen istorio txikiak ere lotuko zaizkio, denak liburutegiez, liburuzainez, liburuez edota isiltasunaz mintzo direnak, isil-isilik entzuteko direnak.

Zergatik isiltasunaren gaia? Izan ere, liburutegietan lan egiten dugunok (liburuzain zein kontalari gisa) askotan sentitu baikara ipuin honetako protagonista bezala.

SINOPSIS:¿Qué necesita una biblioteca? Libros, personas que se interesan por la lectura, un poco silencio para poder leer, y alguien que se encargue de cuidar ese silencio, un o una *guardiana del silencio*, podríamos llamarle. Parece simple, pero no lo es para los habitantes de *Zaratamerke* que están acostumbrados/as a hablar y vivir a gritos. No es porque estén sordos/as, es que les gusta hablar en la distancia, pues se dieron cuenta de que con gritar un poco se ahorraban caminar unos metros más. Total, con escuchar así, por encima lo que el otro decía, suficiente, pues escuchar no era algo importante en aquél pueblo. ¿Y además de gritos, los ruidos que allí siempre había? Cada 5 segundos se oía como si algo se hubiera caído, y es que tiraban las cosas al suelo para no tener que agacharse, por ejemplo. Solo a Isilka Misilka se le ocurriría montar una biblioteca en un lugar así. Y, por si esto fuera poco, también le daría por organizar sesiones de narración de cuentos. ¿Conseguirá algo nuestra heroína del silencio?

A este hilo conductor se le unirán las historias que Isilka contará en esas sesiones, historias en las que las bibliotecas y el silencio cobrarán un gran protagonismo.

Un repertorio dedicado a quienes trabajamos en las bibliotecas, quienes seguro que, en alguna ocasión, nos hemos sentido un poco Isilka.

"Dar-dar? Kar-kar!" /"¿Uy, uy? ¡Ja, ja!"

(Beldurrezko ipuin barregarriak /Cuentos de miedo-risa)

Noizko/sugerido para: Halloween o cualquier fecha

- **Sinopsia**:

Ipuin argi-ilunak dira hauek, gauean kontatzen diren horietakoak. Entzuten dituenari bihotza dantzan jarri eta barre-malkoak sortarazten dizkiote aldi berean. Beldurra eta barrea oso ondo ezkontzen direlako, txorizoa ogiarekin ezkontzen den bezain ondo, biak elkartu ditugu oraingo honetan, bikoitza gozatu ahal izateko. Gure asmoa, berriz, ez da umeak izutzea; beldurrezko ipuinen aspaldiko eta betiko helburua ez da hori. Umeak ipuinen bitartez (fikzioan, alegia) entrenatzen dira errealitateari aurre egiteko. Bizitzan aurkituko dituzten "benetako" une beldurgarriei aurre egiteko prestatzen dira "gezurrezko" istorio dibertigarri hauekin.

- **Sinopsis:**

Son cuentos claroscuros, de los que se cuentan por la noche y ahuyentan los miedos. Al que escucha le ponen, por un segundo, el corazón en un puño, pero, al instante le provocan lágrimas de risa. Y es que el miedo y la risa siempre suelen ir juntos, ¿sabéis por qué? Porque un día la señora Risa se enamoró el Señor Miedo, y formaron una pareja tan feliz como el señor Chorizo con la señora Barrapán.

Con estos cuentos no queremos asustar a nadie; el objetivo de los cuentos de miedo es, desde su origen, otro: enfrentar a quien los escucha a sus miedos; entrenarle en la ficción a lo que más adelante quizá encuentren en la realidad. Y, además, ¡pasarlo de miedo mientras tanto!

"Euskal orroak"

("Rugidos, bramidos, aullidos, en fin, sonidos aterradores varios que hacen los seres sobrenaturales de la mitología vasca.")

(Euskal Herriko beldurrezko ipuinak/ Cuentos de miedo tradicionales de Euskal Herria)

- Noizko/sugerido para: Halloweeen; abenduak 3 (euskararen nazioarteko eguna) edo bestela/ Halloweeen; 3 de diciembre (día internacional del euskara) o cualquier otra fecha.
-
- Sinopsia:

Euskal Herriko ipuin eta mitologiaren mundua oparoa da beldurrezko istorio zein pertsonaiei dagokienez. Gauero-gauero, ipuinaren harian, norberaren beldurrak uxatzeko edo, hamaika izaki izugarri ibili ohi ziren dantzan baserrietako suaren inguruan, hala nola,Tartalo, Gaueko, sorginak, gizotsoak, herensugeak, deabruak … Gauaren lagunak, denak, iluntasunaren beldur bizi ziren neska-mutil eta gizon-andreak ausartago bihurtzeko jaioak.

Eta zu, iluntasunaren oso lasai sentitzen ez zaren hori, ausartuko al zinateke kandelen argitan izaki harrigarri hauek istorioak entzuten? Lasai halako batean esku bat hurbiltzen ari zaizula konturatzen bazara; nire eskua izango da, zuregana babes bila jotzen duena. (Izan ere, ipuin kontalariok ere ikaragarri beldurtzen gara horrelako istorioak kontatzean! Zatoz, bestela nori helduko diot eskutik?)

- Sinopsis:

En los cuentos tradicionales vascos y su mitología abundan sobrecogedoras historias protagonizadas por terroríficos personajes. Noche tras noche acudían a su cita alrededor del fuego de los baserris, para volver a ser contados, recreados; volver a

hechizar y poner los pelos de punta a grandes y pequeños: Tartalo, Gaueko, brujas, hombres lobo, serpientes y dragones, demonios… Estas criaturas nocturnas parecían ser creadas para espantar los miedos de las criaturas diurnas, para convertirles en personas más valientes después de haberse enfrentado a ellas.

Y tú, que no te sientes demasiado a gusto en la oscuridad, ¿te atreverías a escuchar estas misteriosas historias a la luz de las velas? Tranquilo/a si sientes que se te acerca una mano; será la mía que, muerta de miedo, busca tu protección. (¡Y es que las narradoras de cuentos de miedo también pasamos mucho miedo al contar estas historias! Vente que, si no, no tendré a quién agarrarle la mano.)

"Brankatapun!

(Piztia arraroen inguruko ipuin arruntak)"

(historias cotidianas sobre bestias muy poco mundanas)

~ Noizko/sugerido para: Halloween edo bestela/ Halloween o cualquier otra

~ Sinopsia:

Munstro txikiak, lotarakoan: "Aita, ume bat dago nire ohe azpian. Begira ezazu, mesedez!". "Ume bat? Ez, txiki. Egizu lo lasai." "Aita, baina umeak existitzen dira ala ipuinetan baino ez daude?". "Egia ezagutzeko unea iritsi zaizula uste dut. Munstro txiki, umeak existitzen dira, bai. Izugarriak dira, arriskutsuak oso. Izan ere, umeek gu … jan egiten gaituzte. Lasaiago egingo duzu lo orain, txiki?." "Sglub! Aita, kontatuko al didazu ipuin bat? Baina, mesedez, ez dadila umeei buruzkoa izan". "Ondo da. Piztia arraroen inguruko ipuin arruntak kontatuko dizkizut orduan."

Istorio harrigarri horiek ezagutu nahi?

- **Sinopsis:**

Pequeño Monstruo a la hora de dormir: "Papá, hay un niño bajo mi cama. ¡Mira, por favor!". "¿Un niño? Que va. Duérmete, Pequeño Monstruo." "Papá, ¿los niños existen o sólo viven en los cuentos?". "Pequeño Monstruo, creo que ha llegado la hora de que conozcas la verdad: los niños existen. Son terroríficos, peligrosos, muy peligrosos, ya que nos comen a los monstruos. Ahora que ya sabes la verdad, ¿dormirás más tranquilo?". "¡Sglub! Papá, ¿me cuentas un cuento? Pero por favor, que no sea sobre niños." "Está bien. Te contaré historias cotidianas sobre bestias muy poco mundanas."

¿Quieres conocerlas tú también?

“Otso tonto-tontoak?” / “¿Lobos bobos?”

(Otsoen inguruko ipuin dibertigarriak-cuentos divertidos sobre lobos)

- **Noizko/sugerido para:** Halloween edo bestela/ Halloween u otro día.

- **Sinopsia:**

"Otsoa, ...gaiztoa? Bai, oso. Otsoa, ...beldurgarria? Gehienetan. Eta, ...tonto-tontoa? Sarri askotan! Nik ezagutzen dudan otsoa behintzat horrelakoxea da. Nahi al duzu otso tonto-tontoak egiten dituen txorakeriak entzunda ondo pasa? Orduan otsoa ezagutzera etorri beharko duzu. Lasai, txiki, ez zaitu jango, tonto-tontoa da eta!”.

- **Sinopsis:**

Un día le pregunté al lobo: “Dime, lobo malvado, pérfido y feroz, ¿eres realmente tan malo como te pintan?” El lobo abrió su boca y aulló. Yo le dije: “No está mal, ¿pero crees realmente que eres el más fuerte del bosque?”. El lobo miró a la derecha, miró a la izquierda, y me contestó: “No, no soy el más fuerte, pero, ¡por favor!, no se lo digas a nadie.” Yo le contesté: “Gracias por tu sinceridad, lobo feroz. Conmigo puedes estar tranquilo. Soy cuentista y nadie se cree ni una palabra de lo que digo.” Y entonces el lobo me contó su secreto. ¿Quieres conocerlo?

"Filomena Musugorri, errege "

/ "Filomena Musugorri, Rey"

(Nesken aldeko ipuin ez sexistak-cuentos no sexistas en favor de las niñas)

- **Noizko/sugerido para:** martxoak 8, edo bestela/ 8 de marzo o cualquiera.

- **Sinopsia:**

" Filomena Musugorri Errege" saioaren helburua sexu-rolen banaketa kili-kolo jartzea eta, aldi berean, emakume eta gizonen eskubide eta eginbeharren arteko berdintasuna bultzatzea da.

Ikus dezagun nolakoak diren ipuin hauetako protagonistak: Neska liderrak, panpinekin jolasten diren mutilak, printzesa arrosak izan nahi ez duten neskak, gerra gorroto duten mutil bakezaleak, printze arrosak, printze beldurtiak, herensugeak hiltzen dituzten neskak … Ene! Charles Perrault eta Grimm anaiek honelakoak sartu izan balituzte haien ipuinetan … Ba, agian, orain ez genuke genero estereotipoen kontrako ipuin ez-sexistarik sortu behar!

- **Sinopsis:**

“Filomena Musugorri Rey y otros cuentos” pretende romper con el reparto de roles sexistas que los niños/as aun reciben e inculcar la igualdad de derechos y obligaciones entre mujeres y hombres.

Veamos quiénes protagonizan estas historias: niñas líderes, niños que juegan con muñecas, niñas que no quieren ser princesas rosas, niños tranquilos y pacifistas que odian la guerra, príncipes rosas, príncipes miedosos, niñas que cazan dragones …Si Charles Perrault y los hermanos Grimm hubieran incluido estos personajes en sus cuentos, ¡otro gallo nos cantaría ahora!

“Bizar Urdin eta beste zenbait gaiztoren hamaika ipuin” /”Barbazul y otros cuentos de seres violentos”

(genero indarkeriaren ingurukoa-contra violencia de género)

- **Noizko/sugerido para**: azaroak 25 edo bestela / 25 de noviembre o cualquier otro.

- **Sinopsia :**

Ipuinak jakinduriaz betetako zakuak dira. Bizar Urdin horren adibide argia da, izan ere aspaldiko ipuin honek urtetan azaldu die neskatoei genero bortizkeria zertan datzan. Istorio honi esker ikasi ohi dute ongi maite dituztenak eta gaizki maite dituztenak bereizten, erasoaldi batetik nola ihes egin eta baita sufritutakoarengatik nolabaiteko saria ere jaso dezaketela.

Jakinduria-zakuak diren neurrian, ipuinek iniziaziozko bidaia erakargarri baten eran irakasten digute hori guztia. Emozio bidaia honek tren batena dirudi. Eta argitik argira doa, tuneletako iluntasun kitzikagarria zeharkatuz. Horrela barneratzen gaitu jakin-minaren tunelean, susmoarenean, egiaztapenarenean, beldurrarenean eta baita adorearenean ere.

Nahi al duzu beldurraren trenera igo?

- **Sinopsis:**

Los cuentos son sacos de sabiduría. Barbazul es un claro ejemplo de cómo la literatura oral, desde la antigüedad, ha enseñado a las niñas a diferenciar quién les quiere bien y quién les quiere mal, cómo escapar de las manos de un posible agresor y cómo ver su agravio recompensado.

Y como sacos de sabiduría que son, los cuentos enseñan esto de manera divertida pero también a modo de viaje iniciático. Este viaje emocional es como un trayecto de tren que hace un recorrido desde la luz hasta la luz, atravesando la inquietante y no menos interesante oscuridad de los túneles de la intriga, de la sospecha, de la certeza, del miedo, de la angustia y del valor.

¿Te subes al tren del miedo?

"Nire etxea zure etxea da" / "Mi casa es tu casa"

(Kulturartekotasunerako ipuinak-cuentos para interculturalidad)

- **Noizko:** martxoak 21 (arrazakeriaren kontrako eguna); maiatzak 21 (kultur aniztasunaren eguna); azaroak 16 (tolerantziarako eguna); abenduak 18 (etorkinen eguna); edo edonoiz.

- **Sugerido para**: 21 marzo (día contra el racismo); 21 mayo (día para la divesidad cultural); 16 de noviembre (día para la tolerancia); 18 diciembre (día de las personas migrantes.) o cualquier otro.

- Sinopsia:

Behinola, lau egurtxo hartu eta bihotz barruan nuen maitasun guztiarekin etxe txiki bat egin nuen. Bukatzean, *Nire etxea* letreroa idatzi nuen atean. Lurrean etzan eta lo nengoela, euria hasi zuen. Norbaitek jo zuen atea: bustitzen ari zen agure bat zen. "Mesedez, utzidazu sartzen". "Bat sartzen den lekuan, bi ere sartzen dira eta", pentsatu nuen. Eta sartu egin zen. Ondoren, hiru seme-alaba zituen andre batek jo zuen atea; barrura! Gero, zaldi gainean zihoan erregina potolo batek; barrura erregina eta zaldia! Nik ezin nuen ulertu hain etxe txikian nola sartu ote gintezkeen hainbeste jende. "Baina, zerez egina ote dago zure etxea?", galdetu zuen erreginak. "Lau egurtxo eta bihotz barruan nuen maitasun guztiarekin egin dut, andrea". Egur elastikoa al zen hura? Ez horixe. Zuk, entzule txiki, badakizu egurra ez zela kontua

izan, bihotza baizik. Izan ere, bihotza hain da elastikoa non maite ditugun guztiak sartu daitekeen. Orain, nire etxeko letreroari "….. *zure etxea da*" gehitu egin diot.

Sarrera ipuintxo honekin hasten da *Nire etxea zure etxea da* saioa. Eta sarreratxo honen ondoren, beste zenbait istorio joango dira, harien modura, kulturartekotasuna gai korapilatsua iruten. Kolore guztietako saio hau dibertigarria izan dadin berriz, bertan ez da faltako umorea, misterioa, parte hartzea eta jolasa.

Ba al zatoz nire etxera?

- Sinopsis:

En cierta ocasión, me construí una casita con cuatro tablas y todo mi corazón. Al acabar, coloqué un letrero en la entrada que decía *Mi casa*. Me tumbé en el suelo y me dormí contenta con mi trabajo. De repente, empezó a llover y alguien llamó a mi puerta. Era un anciano que se estaba mojando. "Por favor, déjame entrar". "Donde entra uno entran dos, pensé, y le abrí. Después, llamó a mi puerta una mujer con tres criaturas. ¡Para dentro! Al rato, una hermosa reina, hermosa en todos los sentidos, que venía a caballo. ¡Para dentro los dos! Yo no entendía como en una casa tan pequeña podía caber tanta gente. "Pero, ¿Con qué has hecho esta casa?", preguntó la reina. "Con cuatro tablas y todo mi corazón", le contesté.

Y tú, criatura pequeña pero intuitiva, amante de los enigmas, ya habrás deducido que las tablas no eran de una madera especial ni elástica ni mágica ni nada de eso; y que la razón de que se diera tanto de sí hay que buscarla en el corazón; pues el corazón es tan elástico que en él caben todas las personas a quien queremos.

Desde entonces, el letrero de mi casa dice *Mi casa es tu casa*.

Con este cuento introductorio empieza la sesión, sumándose a esta otras pequeñas historias que irán tejiendo el complicado tema de la interculturalidad. Y para que a esta sesión sea también divertida, no faltarán humor, misterio, participación y juego.

¿Te vienes a mi casa?

"Nirea, gure" / “Lo mío es nuestro.”

(Pobreziaren kontrako ipuinak-cuentos contra la pobreza)

- **Noizko:** Urriak 17: Pobreziaren kontrako eguna
- **Sugerido para**: 17 de octubre: día contra la pobreza

- **Sinopsia**:

Herri ipuin asko eta askotako protagonistak pobreak izaten dira, bidean eta bukaeran aberastuz. Konturatu al zarete? Bidean, ikasitakoarekin; bukaeran, jasotako sariarekin (sari hori, askotan, ez da ekonomikoa izango.)Pobrezia berriz, eta zoritxarrez, ez da soilik ipuinetako kontua; ezta aspaldikoa ere, alderantziz. Ditxosozko krisia dela eta, gero eta pobreagoak omen gara.

Baina, jo dezagun jatorrira: nondik ote dator pobrezia? Zer da pobrea izatea? Nor da aberatsagoa, dirutza duena ala lagun on asko dituena? Zerk balio du gehiago, munduko kotxerik garestienak ala lagundu diogun norbaiten esker onezko irribarreak?

Dena erosi al daiteke? Zer ezin da erosi? Nola borroka gintezke pobreziaren kontra?

Ene, zenbat galdera! Eta zer gai korapilatsuak! Garai bateko pobrezia, gaur egungoa eta biharkoa. Kontsumismoa, egoismoa, diruaren diktadura. Lasai, elkartasunaz eta enpatiaz betetako istorio xume zein dibertigarri hauek entzun ondoren mundua hobeto ulertuko edota konponduko ez dugun arren, agian bihotzean zerbaitek klik! egin eta, unetxo batez, ondoan dugunarekin eskuzabalago jokatzeko tentazioa izango dugu.

- **Sinopsis:**

Muchos de los/as protagonistas de los cuentos tradicionales son pobres que se enriquecen a lo largo y al final de la historia. ¿Os habíais dado cuenta de ello? A lo largo de la historia, se enriquecen por la adquisición de nuevos conocimientos, actitudes o habilidades; al final, gracias a la recompensa recibida (que no tiene por qué ser económica) Sin embargo, la pobreza no es algo que vive sólo en los cuentos; ni siquiera es algo que dejamos en el pasado. Y si no, no hay más que leer, ver, oír las noticias y contar cuántas veces sale la palabra *crisis*.

Vayamos a su origen: ¿de dónde viene la pobreza? ¿Qué es ser pobre? ¿Quién es más rico, quien tiene millones de euros, o quien tiene unos cuantos buenos amigos/as? ¿Qué vale más, el coche más caro del mundo o la sonrisa con la que te agradece alguien la ayuda que le acabas de prestar?

¿Se puede comprar todo? ¿Qué no se puede comprar? ¿Cómo podemos luchar contra la pobreza? ¡Cuántas preguntas! ¡Qué temazos! La pobreza de antes, la de ahora, la de mañana… el consumismo, el egoísmo, la dictadura del dinero… ¡Tranquilos/as! Todo esto, con unas historias que lleven un poquito de solidaridad, otro poquito de empatía y mucho de diversión, lo tendremos superado. Bueno, quizá no del todo, pero ¡quién sabe! Aunque no consigamos comprender mejor ni arreglar el mundo, puede que después de escuchar estas historias algo en el corazoncito nos haga ¡clic!, y nos entre la tentación de ser más generosos/as con quienes tenemos al lado.

“Zu eta ni, bi begi nini”/

“Tú y yo, dos pupilas del mismo rostro.”



(Bizikidetzaren ingurukoak-cuentos para la convivencia)

- **Noizko/sugerido para**: azaroak 16 (tolerantziarako eguna) edo bestela; 16 de noviembre, día para la tolerancia) o cualquier otro.

- **Sinopsia**:

Zeuk nire begiez ikusiko bazenu zeure burua eta neuk zure begiez neurea,... alegia, bestearen tokian jartzea lortuko bagenu, errazago ulertuko genuke elkar; bi izatetik, bat izatera pasatuko ginateke. Horixe jakin beharko lukete hiru ipuin hauetako protagonistek, beti elkarri mokoka dabiltza eta. Baina, ez gaitezen serioegi jarri. Oso egoera barregarriak kontatuko dizkizuet istorio liskartsu hauetan, bizikidetzarako ez baitago gauza hoberik haur talde bat batera barrez ikustea baino.

- **Sinopsis:**

Si tú pudieras verte a través de mis ojos y yo pudiera verme a través de los tuyos, es decir, si pudiéramos ponernos en el lugar de la otra persona, nos entenderíamos mucho más fácilmente. De ser dos, pasaríamos a ser una. Esto tan evidente deberían haber aprendido los/as protagonistas de estos tres cuentos, que siempre andan a la greña. Pero no nos pongamos demasiado serios/as, que vamos a escuchar historias de lo más graciosas. Ya veréis como no es tan difícil hacer las paces, e, incluso, terminar riéndose con quien nos acabamos de pelear. Que de reñir a reír sólo cambia una letrita de nada.

"Bullying-a, hori mina!" / "Bullying, !qué dolor!"

(Bullyingaren kontrako ipuinak-cuentos contra el bullying)

- **Noizko**: irailak 21 (bakearen eguna); urriak 2 (indarkeriaren kontrako eguna); azaroak 16 (tolerantziaren eguna); abenduak 3 (minusbaliatuen eguna); edozein egunetarako .

- **Sugerido para:** 21 de septiembre (día de la paz); 2 de octubre (día para la no violencia); 16 de noviembre (día para la tolerancia); 3 de diciembre (día de las personas con discapacidad); o cualquier día.

- **Sinopsia:** "Zer desberdina naizen! Besteak bezalakoxea izan nahi nuke". Honelako zerbait pentsatu al duzu inoiz? Ipuin hauetako protagonistek bai, ordea, desberdintasuna onartzen ez den mundu batean bizi direlako. *Frikiak* deitzen diete batzuk, edota *txakur berdeak, arraroak, bereziak* … Gelan ere, txoko batean esertzen dira, bazterturik. "Horiek ez dira gu bezalakoak. Ez dugu haiekin ezertxo ere nahi". Badirudi hitz hauek erabiltzen dituztenek uste dutela gehienok berdinak edo berdintsuak garela. Hala uste al duzu zuk?

Eta hala balitz? Zer gertatuko litzateke denok berdinak izango bagina? Denok ile luze beltza, elastiko gorri bera, ahots bera, ibiltzeko modu berdina, jenio bera; onak saskibaloian, oso txarrak matematiketan, erdipurdikoak gainontzeko gaietan … Denok berdinak izango bagina, nola jakingo genuke nor den nor? A zer nolako amesgaiztoa litzatekeen!

Zatoz eta ondo pasa ipuin berezi hauekin, zuretzat bereziki sortutakoak, bereziki ondo pasa dezazun! Bide batez, agian, ikusiko duzu bereziki garrantzitsua dena zera dela, denok garela bereziak, ez baitago munduan gu bezalakorik.

- **Sinopsis:**

"¡Qué diferente soy! Me gustaría ser como los demás." ¿Has pensado esto alguna vez? Los/as protagonistas de estas historias sí, pues viven en un mundo donde no se acepta lo diferente. Hay quien les llama *Frikis*, o *Perros verdes*, *raritos/as, especialitos/as* … En el aula tienen que sentarse en un rincón. "Esos/as no son como nosotros/as. No queremos nada con ellos/as", escuchan los marginados/as cuando se refieren a ellos/as. Como si viviéramos en un mundo de dos tipos de personas: uno grande donde todas son iguale; otro, pequeño, donde son diferentes. ¿Tú crees que esto es así?

¿Y si así fuera? ¿Qué pasaría si todas las personas fuéramos iguales: con el mismo pelo largo y negro, el mismo jersey rojo, la misma voz, la misma manera de andar, el mismo genio…; malas en baloncesto, buenas en mates, regulares en el resto … Si todas las personas fuéramos así de iguales, ¿cómo nos reconoceríamos? ¿Cómo sabríamos quién es quién? Sería una auténtica pesadilla.

Ven a divertirte con estos cuentos tan especiales, hechos especialmente para ti, para que te lo pases especialmente bien, y también para que veas que, lo especialmente interesante es que todos/as somos especiales, pues no hay nadie en el mundo que sea idéntico a nosotros/as.

“Nire armak armiarmak ditu”

/”Mi arma tiene telarañas”

(Indarkeriaren kontrako ipuinak- cuentos contra la violencia)

- **Noizko**: urtarrilak 30 (bakearen eguna eskoletan); maiatzak 8 (munduko bigarren gerraren bukaera); irailak 21 (bakearen nazioarteko eguna); urriak 24-30 (Desarmearen aldeko astea); edo bestela.
- **Sugerido para**: 30 enero (día escolar para la paz); 8 de mayo (aniversario fin segunda guerra mundial); 21 septiembre (día internacional para la paz); 24-30 octubre (semana contra el desarme); o cualquier otro.

-Sinopsia: Bazen behin herri handi bat, armada izugarri handia zuena. Herri Handiak munduko beste herri guztiak hartu nahi zituen bere gain. Bazeukaten Jeneral prestu bat, gerra estrategiez asko zekiena eta beti irabaztea lortzen zuena. “Haien on beharrez hartu behar ditugu menpean, haien bizimodua hobetzeko, alegia”, esaten zien soldaduei erasoaren aurretik. Konkista bakoitzaren ondoren, Herri Handira itzuli eta txalo artean jasotzen zuten Jenerala. Behinola, hara non konturatu ziren artean ere bazela herri txiki ñimiño bat konkistatu gabe zegoena. Gaua aukeratu zuten, erasoa ezustea handiagoa izan zedin. Bertara iristean berriz, a zer nolako ezustea soldaduek hartu zutena! Izan ere, oso herri arraroa zen. Soldaduei ongi etorri afaria eskaini

zieten iritsi orduko. Eta afaria bukatutakoan, hamaika kontu harrigarri kontatu zizkieten, denak gerran sinesten ez zuen herri txiki eta bitxi hartan gertatutakoak.

Gerraren ondorio gordinak. Gerrarako garamatzaten jarrerak. Gerrak ekiditeko bideak. Armen negozioa. Elkarrizketa, elkar ulertzea, negoziazioa …. Hauek guztiak aurkituko, nola edo hala, gerraren kontrako istorio dibertigarri hauen artean, entzuleak berehala konkistatuko duten kontu baketsu hauetan.

- Sinopsis:

Érase una vez un Gran País (así le llamaban) con un gran ejército que quería conquistar todos los países del mundo. Tenían un valiente General que conocía todas las estrategias de la guerra y que siempre conseguía la victoria. Siempre. "Lo hacemos por su bien, para que mejoren su modo de vida", les decía a sus soldados antes de cada ataque. Tras la conquista, volvía a su país y era recibido entre vítores. Sin embargo un día el General se dio cuenta de que le faltaba un pequeñito país por conquistar, tan pequeño que apenas salía en algún mapa. Allí fueron General y ejército, y cuál fue su sorpresa al ver que aquel país era muy diferente. Nada más llegaron a él, les acogieron con una cena de bienvenida. Y, después de la deliciosa cena, les regalaron el oído con las historias más bellas jamás escuchadas. Todas ocurridas en el pequeño país, en aquel pequeño país que no creía en la guerra.

Las consecuencias de la guerra, las actitudes que pueden crear una guerra, los modos de evitarla, el negocio de las armas…, todos estos temas aparecerán, de uno u otro modo, en estas divertidas historias sobre la guerra, en estos pacíficos cuentos que conquistarán poco a poco a los/as que tranquilamente las escuchen.

“Printzesak maite zituen printzesa” /

“La princesa que amaba a las princesas”

(Homosexualitatea eta maitasunaren aldeko ipuinak/ cuentos sobre la homosexualidad y el amor)

- **Noizko**: maiatzak 17 (homofobiaren kontrako nazioarteko eguna); ekainak 28 (gay naiz eta harro eguna); edo bestela.
- **Sugerido para**: 17 mayo (día internacional contra la homofobia); 28 junio (día orgullo gay); cualquier otro.

- **Sinopsia:**

“Urtebete duzu zure gustuko printzea aukeratzeko”, esan zioten behin Muskilda printzesari. “Urtebete ez da denbora askorik. Hobe dut lehenbailehen haren bila abiatzea”, erantzun zuen printzesak, zaldia prestatuz . “Ama, baina nola jakingo dut nire printzea urdina ezagutu dudala?” “Hori berehala jakiten da, alaba. Begietara begiratu orduko, urdailean tximeletak hegaka sentituko dituzu.” Muskilda mundu zabalera irten zen. Luze ibili ondoren, gaua zelarik, baso ilunean zegoen gaztelu zahar batera iritsi zen gure Muskilda. Atea jo eta andre zahar batek ireki zion: “Gabon, mesedez, gau honetarako aterpea nahi nuke.” “Alde hemendik etxe honetako jabea esnatu baino lehen. Gaztelu honetan Grufus ogroa bizi da, zu bezalako neskak

bahitu eta jan egiten dituena. Orain dela hilabete aterpe bila etorri zen azkena, ziega batean sartu zuen, lodi-lodi dagoenean jateko." "Lasai, emakumea. Ez naiz denbora askoan egongo. Gainera, janari asko izango da ziega horretan eta lastima litzateke alperrik galtzea. Eraman nazazu bertara afaldu eta gaua pasa ahal izateko." Andre zaharrak kasu egin behar Muskildari. Ziega hartan ezagutuko zuen Katixa printzesarekin afaldu eta lo egin ondoren, hura salbatzea lortuko du Muskildak, bidaia lagun bihurtuz. Muskilda eta Katixa hasieratik zirrara berezia sumatuko dute elkarri begiratzean, urdailean tximeletak izango balituzte bezala. Hamaika abentura pasa ondoren, aurkituko ote dute bien artean printze perfektua?

Honek eta beste bi ipuinek osatuko dute homosexualitatearen aldeko errepertorio liriko, dibertigarri, harrigarri eta hunkigarri hau, homosexualitatea aukera erreala bezala hartuta baina, batez ere, argi utziz maitemintzeko orduan ez dizkiogula gure buruari mugak jarri behar. Printzesa guztiek ez baitute printze urdin batekin amets egiten.

- Sinopsia:

"Tienes un año para encontrar al príncipe de tus sueños", le dijeron un día a la princesa Muskilda. "Un año no es mucho tiempo", se dijo, "más me vale partir cuanto antes en su busca. Mamá, pero ¿cómo reconoceré a mi príncipe azul?" "Eso es muy fácil, pequeña. En cuanto te mire a los ojos, sentirás en tu estómago aleteo de mariposas." Preparó su caballo y partió veloz. Tras mucho cabalgar, ya en noche cerrada, se adentró en un bosque más cerrado y tenebroso aún, donde había un viejo castillo. Llamó a la puerta y una anciana le abrió. "Por favor, ¿podría pasar aquí la noche?" "Vete de inmediato, pequeña, antes de que vuelva el dueño de esta casa. Es el ogro Rufus y se secuestra para luego comerse a las doncellas como tú. La última que secuestró la tiene en una celda, engordándola día a día." "Tranquila, señora. No estaré mucho tiempo. Además sería una pena que se estropeara toda la comida que preparas para esa chica. Llévame allí, que tengo hambre y sueño." La anciana le tuvo que hacer caso. Muskilda conoció a Katixa en aquella celda, y se convirtió en su compañera de viaje. Después de huir juntas, partieron felices en busca del príncipe perfecto. ¿Lo encontrarán? Bueno, quién sabe. Además, tampoco saben si realmente les hace falta, pues desde el día que se conocieron Muskilda y Katixa sienten al mirarse miles de mariposas revoloteando en el estómago.

Este y otros dos cuentos completan este lírico, divertido, asombroso y emocionante repertorio que trata de enfocar la homosexualidad como una opción real, dejando claro que en el amor no hay límites. Ya que no todas las princesas sueñan con príncipes azules.

"Amalurraren negarrek itsasoa sortu zuteneko ipuinak"

/ "De cuando las lágrimas de la tierra crearon el mar"

(Ipuin ekologistak-cuentos ecologistas)

- **Noizko**: martxoak 22rako (uraren eguna); apirilak 22 (ama lurraren eguna); ekainak 5 (ingurugiroaren eguna); ekainak 8 (ozeanoen eguna); ekainak 21 (eguzkiaren eguna); ekainak 28 (zuhaitzaren eguna); irailak 16 (ozono geruzaren babesaren eguna); urriak 3 (habitaten eguna); urriak 12 (sarraski ekologikoen murrizketarako eguna); abenduak 11 (mendien eguna); edo bestela.

- **Sugerido para**: 22 marzo (día del agua); 22 abril (día Madre Tierra); 5 junio (día medioambiente); 8 junio (día de los océanos); 21 junio (día del sol); 28 junio (día del árbol); 16 septiembre (día preservación capa ozono); 3 octubre (día del hábitat); 12 octubre (día reducción desastres ecológicos); 11 diciembre (día de las montañas); o cualquier otro.

- **Sinopsia:**

Izadiak, ama izaki, lan zaila enkargatu zien bere hiru alaba Lur, Ur eta Aireri, izakiak sortzeko agindu baitzien. Airek, txoriak; Urek, arrainak; Lurrek, gizakiak. Txoriek kantuka eskertu zuten sortuak izana. Arrainek, ur azpiko dantza ederrak eskainiz. Gizakiek, berriz, ezer eskertu ez.

- Zergatik ez ditugu hegalak txoriek eta arrainek bezala? – kexatu ziren.- Haiek bezain azkarrak izan nahi dugu! Hobeto esanda, haiek baino azkarragoak izan nahi dugu!

Lurrek ez zuen ezertxo ere esan. Pilota bat bezala bildu, eta negar eta negar hasi zen, bere malkoen gaziaz ozeanoak sortuz. Baleek eta izurdeek, esker onez, abesti zoragarriak sortu zituzten.

Gizakiek, azkarragoak bihurtuko zirelakoak, txoriak eta arrainak harrapatu eta jan egin zituzten. Baina, hegalik atera ez, ez horixe. Hegan egiten ikasi ez, eta uretan ere ez oso trebe: azkarrenak izan gabe jarraitzen zuten. Lortuko ote zuten azkarrenak izatea? Lortuko ote dugu azkarrenak izatea Ama Lurrari min gehiago egin gabe?

- Sinopsis:

La Madre Naturaleza encargó a sus hijas Tierra, Agua y Aire la difícil tarea de crear seres. Aire creó pájaros; Agua, peces; y Tierra, humanos.

Los pájaros agradecieron ser creados, llenándolo todo con sus bellos trinos. Los peces también, ofreciéndole hermosas danzas acuáticas. Los humanos, sin embargo, no agradecieron nada.

- ¿Por qué no tenemos alas como los pájaros?–se quejaron-¿Por qué no tenemos aletas como los peces? Queremos ser tan rápidos como ellos. No, ¡queremos ser más rápidos que ellos!

Tierra no dijo nada. Se recogió triste y apesadumbrada como una pelota, y lloró, lloró y lloró sin parar. Sus lágrimas saladas crearon océanos. Las ballenas y los delfines, agradecidos, entonaron bellas canciones submarinas.

Los humanos, en su anhelo de ser los más rápidos, cazaron pájaros y se los comieron, pensando que así les saldrían alas y podrían volar. Pescaron peces y se los comieron, pensando que así surcarían más rápido los mares. Pero, aún así, seguían sin ser los más rápidos. ¿Conseguirán serlo algún día? ¿Conseguiremos serlo sin hacerle más daño a la Madre Tierra?

“Zaharrak maite ez zituzten herria”

/”El país que no quería a los ancianos/as”



(Adinekoen aldeko ipuinak-cuentos en favor de los ancianos/as)

- **Noizko**: Urriak 1 (Adinekoen eguna)
- **Sugerido para:** 1 octubre (día de las personas mayores)

- **Sinopsia:**

Kultura desberdinetako aspaldiko ipuinek kontatzen digute garai batean zer egiten zuten adineko pertsonekin, zein modu krudelean abandonatu, etxetik bidali edota hiltzen ote zituzten. Ipuin krudelegiak? Orduko ankerkeriaren berri emateko sortuak, lehenaldian egindako astakeriak berriz ere ez egiteko behin eta berriro kontatuak. Behin eta berriro kontatu behar, dirudienez. Are gehiago gaur egun, beharbada, bizi garen garaiaren erritmoari eusteko eta besteen aurrean erakargarria izateko gaztea izatera behartuta gaudela dirudi eta.

Ipuin hauek adinekoentzako omenalditxoa lirateke. Adineko pertsonekiko errespetuaz, pertsona edadetuen jakinduriaz eta bizitzeko grinaz, zenbait zahar ume bihurtzen direneko uneaz, … horretaz guztiaz mintzatuko gara istorio hauetan zehar, besterik ez bada ere, egun batean geu ere zahartuko garela gogorarazteko.

- Sinopsis:

Cuentos de otras épocas pero comunes en muchas culturas narran cómo en su día fue habitual el abandono de los más mayores. ¿Cuentos crueles? Quizá cuentos se narran para no olvidar las atrocidades cometidas en el pasado, pero también historias que nos recuerdan una y otra vez que son personas a las que debemos todo nuestro respeto y agradecimiento, de las que podemos aprender miles de cosas gracias a todo el saber que atesoran, escuchar miles de historias que su memoria alberga.

Este repertorio es, pues, un homenaje a los/as más mayores, necesario en un tiempo en el que ser joven parece obligatorio para sobrellevar este loco estilo de vida y estos estúpidos estereotipos de belleza. Y quizá nos ayuden a recordar que, algún día, nosotros/as también envejeceremos.

“Hango hunga…”

(Historiaurreko ipuinak-cuentos de la prehistoria)

- **Noizko**: maiatzak 18 (museoen eguna); edo bestela.
- **Sugerido para**: 18 mayo (día del museo); o cualquiera.

- **Sinopsia:** Lehen-lehen, aspaldi-aspaldian, gizakiok kobazuloetan bizi ginen garaietan, bazen amona zahar bat suaren inguruan gauero-gauero istorioak kontatzen zizkiguna. Zer istorio ote ziren haiek, ordea? Nolakoak? Zaharrak, oso zaharrak. Munduaren hasierakoak batzuk (lurra, mendiak, itsasoa edota gizakiak nola sortu ziren azaltzen zutenak), dinosauro eta bestelako piztia harrigarriei buruzkoak, eta abar. Barregarriak haietako asko, baina baita beldurgarriak ere. Ipuin bat kontatzen hasi behar zuen bakoitzean, amonak besoak zabaldu, begiak itxi eta “Hango hunga ... “ hitzak esaten zituen. Orduan denok, isil-isilik, begiak eta ahoa ireki, eta istorio gazi-gozo haiek entzun eta bizi egiten genituen.

- **Sinopsis**: Antes, antes, cuando vivíamos en una cueva, había una anciana que nos contaba historias cada noche alrededor del fuego. Eran viejas historias, más viejas que ella misma. Y fijaos si era vieja que había conocido a los últimos dinosaurios. Algunas hablaban del principio, de cómo surgió la tierra, los montes, el mar, la mujer y el hombre…; otros hablaban de legendarias bestias. A veces nos moríamos de la risa, pero otras nos daban tanto miedo que no nos atrevíamos a salir de la cueva hasta que amanecía. Cada vez que se disponía a contar una, extendía los brazos, cerraba los ojos y pronunciaba “*Hango hunga*

…". Entonces todos y todas nos callábamos, y abriendo bien ojos y boca escuchábamos e incluso llegábamos a vivir aquellas historias.

“Unibertsoa gaztea zeneko ipuinak”

/”Cuentos de cuando el universo era joven todavía”

(Espazioari buruzko ipuinak-cuentos sobre el espacio)

- **Noizko**: Urriak 4-10 (Espazioaren astea); ekainak 21 (eguzkiaren eguna); edo bestela.
- **Sugerido para**: 4-10 octubre (semana del espacio); 21 junio (día sol); o cualquiera.

- **Sinopsis**:

Zeruaren handitasuna, eguzkiaren indarra, ilargiaren neurri aldaketa misteriotsuak … Ume txikiei bezala, kultura guztietako emakume-gizonei jakin mina eta harridura piztu dizkiete. Horrela sortu ziren, eta sortzen dira egunero ere, lekuan lekuko zeruari begira kontatzeko ipuinak, unibertsoa gaztea zenekoak alegia.

Eguzkiaren harrokeria, Ilargiaren konplexuak, izarrak nola sortu ziren, astronauten komeriak eta basapiztia estralurtar harrigarriak dira, besteak beste, ipuin hauetako nondik norakoak. Ortziari begira aho bete hortz eta belarri bete hots entzuteko ipuinak. Hori bai, zientzietako liburuak urrun izan entzutean, izan ere ez baitute batere zerikusirik izango eskolan ikasitakoarekin, txikitan sentitutakoarekin baizik.

- Sinopsis:

La inmensidad del firmamento, la fuerza del sol, los misteriosos cambios de tamaño de la luna… no sólo a los/as más pequeños de hoy en día, a las personas de todas las épocas y culturas les ha sorprendido de la misma manera, encendiendo su curiosidad e imaginación y llevándoles a crear las historias más asombrosas y bellas que les ayudaran a explicar el porqué de todo aquello.

El orgullo del sol, los complejos de la luna, la creación de las estrellas, peripecias de astronautas y extraños monstruos extraterrestres habitan el repertorio de estos cuentos creados para ser contados mirando al cielo. Eso sí, con el libro de ciencias bien lejos, pues nada de lo que en el cole hayan aprendido podrán encontrar en estas sugerentes y divertidas historias.

“Owey-oweya”

(Ameriketako kontu eta kantak-cuentos y cantos de las Américas)

- **Noizko**: apirilak 14 (Ameriken eguna); abuztuak 9 (herri indigenen eguna); edo bestela.
- **Sugerido para**: 14 de abril (Día de las Américas); 9 agosto (día pueblos indígenas); o cualquier otro.

- **Sinopsia**: Zein koloretakoa ote da Amerika? Gorria, Azal Gorrien antzera? Zuri-gorria, kokakola eta Aita Noelen jantzia bezala? Ala zuri-zuria, bertara joandako euskal artzainek zaintzen zituzten ardien koloreko? Eta karibetar itsasoaren urdina? Eta Amazoniaren berde bizia...? Ene, hamaika kolore ditu Amerikak! Konta eta kanta dezagun Amerika, beraz, hamaika kolore horiek erabilita.

- **Sinopsis**: ¿De qué color es América? ¿Rojo como los Pieles Rojas? ¿Blanco y rojo, como la cocacola y el traje de Papá Noel? ¿O blanco, como las ovejas que cuidaban los/as pastores vascos que allí emigraron? ¿Y azul, como el mar Caribe? ¿Por qué no verde, como la selva del Amazonas? Pero, ¡cuántos colores tiene América! Tantos como Américas hay, seguramente. Cantemos y contemos América, pues, con todos los colores de nuestra voz.

"Matulutulu"

(Afrikako ipuinak-cuentos de África)

- **Noizko**: maiatzak 21 (kultur aniztasunaren eguna); maiatzak 25 (Afrikaren eguna); ekainak 16 (Hegoafrikako borrokarekiko elkartasunerako eguna); uztailak 18 (Nelson Mandelaren eguna); abuztuak 9 (Hegoafrika eta Namibiako emakumeen aldeko borrokarekiko elkartasunaren eguna); edo bestela.

- **Sugerido para**: 21 mayo (día para la diversidad cultural); 25 mayo (día de Africa); 16 junio (solidaridad con el pueblo en lucha de Sudáfrica); 18 julio (día de Nelson Mandela); 9 agosto (día para la solidaridad con la lucha de las mujeres de Sudáfrica y Namibia); cualquier otro.

- **Sinopsia:**

Matulutulu, egunaren lehen argi-txinta, Afrika beraren sinboloa izan liteke, gizakiaren jatorria bertako dela uste dutenentzat, behitzat. Ez da, ba, kasualitatea izango gauzen jatorriez mintzo diren ipuin asko eta asko afrikarrak izatea. Ez dakigu dena Afrikatik ote datorren, baina bai dakigu, ordea, afrikar kultura anitzei ikaragarri gustatu izan zaiela "Zergatik?" galderari ipuinen bitartez erantzunak ematea. Adibiderik behar? Hona hemen zenbait: zergatik ote dio beldurra elefanteak saguari; zergatik ote den gazia itsasoa; zergatik bizi ote den katua gizakiokin …

Afrika zure liburutegira hurbildu denez, zergatik ez zatoz zeu ere zergatien ipuinak entzutera? Agian zeure galderak ere ipuin afrikar batekin erantzun ahal izango ditugu. Edota bestela, bion artean asmatuko!

- Sinopsis:

Matulutu, la primera luz del día, podría ser el símbolo de África al menos para quienes creen que todo empezó allí, me refiero al origen de los seres humanos. De hecho, quizá no sea una casualidad que de este enorme continente provengan muchos de los cuentos que explican el origen de las cosas. Empezara todo allí o no, sí que a muchas de las culturas africanas les encanta responder a los porqués de los niños/as contándoles un cuento, un cuento que, forzosamente, habla del origen de las cosas. Por ejemplo, cuando preguntan: ¿Por qué los elefantes tienen miedo a los ratones? ¿Por qué es salado el mar? ¿Por qué a los gatos les dio por dejar la jungla e irse a vivir con los humanos? …

¿Por qué no te vienes a la biblioteca y sigues tú preguntando? Quizá encontremos una respuesta a tu pregunta en forma de cuento africano. Y si no, nos la inventamos. ¿Te hace?

"Altjeringa edo Lo Luzearen garaia" /

"Altjeringa o el tiempo del Gran Sueño"

(Australiako ipuinak-cuentos de Australia)

- **Noizko**: maiatzak 21 (kultur aniztasunaren eguna); abuztuak 9 (herri indigenen eguna); edo bestela. **Sugerido para**: 21 mayo (día para la diversidad cultural); 9 agosto (día de los pueblos indígenas); o cualquier otro.

- **Sinopsia:**

Izaki erraldoi eta boteretsuek urteak zeramatzaten lo Lurraren gainean etzanda. *Lo Luzearen garaia* zen hura. Eta guri, gizakioi, gertatzen zaigun bezala, lo potoloaren ondoren (beno, esnatu berritan ez, orduan ez baikara gauza askorik egiteko gai, esan nahi dugu esnatu eta handik pixka batera) oso ondo sentitu ziren, lan egiteko erne, eta oso sortzaile. Zer bururatuko eta mundua sortzea, munduan dauden gauza guztiak alegia, gizakiak barne. Eta, bide batez, garbigailua instalatzen dizunak egin behar izaten duen bezala, azaldu ere azaldu omen zieten mundu horrek nola funtzionatzen ote zuen.

Australiako aborigenen kondaira laburtua, eta nabarituko zenutenez, pittin bat moldatua da hau. Aborigen hauek mendeak daramatzate bizimodu berdintsua eramaten eta bere mitoetan sinesten. Mendeak lo eta esna, eta esna daudelarik izandako ametsak egiatzat hartzen.

Zatoz eta lasai entzun Australiako basamortu harrigarritik datozen kontu bitxiak eta zaharrak, baietz gero amets onak izan!

- **Sinopsis:**

Los *Primeros Seres*, seres enormes, sobrenaturales, llevaban años echando la siesta sobre la Tierra. Aquel era el tiempo del *Gran Sueño*. Y les sucedió como a nosotros/as, los humanos/as, que después de esa enorme siesta (no inmediatamente, porque al

principio siempre se está en ese estado de modorra que no se puede mover una ceja sin pensárselo antes), se sentían muy despiertos, creativos, capaces de todo. Por eso se les ocurrió crear el mundo, crear todo lo que este lleva, humanos/as incluidos, y de paso explicarnos cómo funciona. (Vamos, como debiera de hacer quien te instala la lavadora, o la wifi o lo que sea. Lo malo es que como han pasado tantos años de la creación del mundo, lo mismo se nos estropea algo y ya no lo cubre la garantía…)

Esta una pequeña versión de la conocida leyenda aborigen sobre el origen del mundo. Los aborígenes llevan siglos viviendo de una manera muy similar, manteniendo sus costumbres y creencias. Siglos de vigilia y sueño, siglos de contarse los sueños despierto, atribuyéndoles una veracidad bastante mayor que la que nosotros/as les atribuimos.

Vente a escuchar los curiosos cuentos y leyendas del desierto australiano; seguro que después tus sueños te harán despertar.

"Mundipurdiko ipuinak"

/ "Cuentos de Culimundi"



(Oso urrutitik datozen kontuak-cuentos y alborotos desde sitios muy remotos)

- **Noizko**: maiatzak 21 (kultur aniztasunaren eguna); irailak 27 (turismoaren eguna); azaroak 16 (tolerantziaren eguna); edo bestela;
- **Sugerido para**: 21 mayo (día diversidad cultural); 27 septiembre (día del turismo); 16 noviembre (día tolerancia); o cualquiera.

- **Sinopsia**:

Munduak ipurdirik bai? Ez? Zergatik esaten dugu, orduan, batzuetan *munduko ipurdiraino* joan garela ? Aa. Distantzia kontua baino ez da, beraz. Lasaiago gelditzen naiz horrela, izan ere, munduak ipurdirik balu, aulki bat eskatuko luke atseden hartzeko, eta a zer nolako aulkia beharko lukeen, mundiala! Eta munduak ipurdirik balu, burua ere izango luke, eta besoak, eta hankak; eta hankak izaki, korrika hasiko balitz, denok erori egingo ginateke … Edota, larriago oraindik, munduak ipurdirik balu, bertatik aterako litzatekeena ere mundiala izango litzateke.

Utz dezagun, beraz, distantzia adierazpentxo batean. Horrela *Mundipurdiko* ipuinak zera izango dira, urrutiko kontuak, han-hemenkakoak (kontu argiak, kontu ilunak; kontu garbiak edota zikinak ere bai, azken batean ipurdiaz ari gara; kontu berriak edota zaharrak, ipurdika ibiltzeak hori dauka, ezta? Denboran atzera egiten dela). Egin dezagun, beraz, bidai munduan barrena ipuinez ipuin, edo, aulkia ibiltzen den bezala, ipurdiz ipurdi eta bizkarrez bizkar. Izan ere, batzuetan zenbat eta urrutiago joan, orduan eta hobeto ulertzen dugu herrian duguna; eta, jakina, askoz hobeto hartu ere ezezaguna.

- Sinopsis:

¿Tiene el mundo culo? ¿No? ¿Y dónde hemos estado cuando decimos hemos ido al *culo del mundo*? Aa. Quieres decir que era un sitio lejano. Ya me quedo más tranquila, pues si el mundo tuviera culo, pediría una silla para descansar, y necesitaría una silla, ¡mundial! Y si el mundo tuviera culo, también tendría cabeza y brazos, y piernas; y lo mismo le daría por salir corriendo, cayéndonos todos/as al vacío. O mucho peor, si el mundo tuviera culo, no quiero ni contarte qué saldría por ahí, en fin, todo un mundo, esto del culo mundial.

Dejémoslo en términos de distancia, pues. De esta manera, los cuentos de *Culimundi* serían únicamente historias muy lejanas, de allí, de allá, de *acullá*, cuentos exóticos quizá. Pero también cuentos claros, cuentos oscuros, según si es de día o de noche allí, allá o *acullá*. Cuentos nuevecitos, o ya un poco viejos…, ya sabéis por lo de los husos horarios. Cuentos de altezas o de bajezas, al fin y al cabo son cuentos del trasero del mundo. Viajemos así mundo a través de cuento en cuento o, como lo hacen las sillas, de una espalda a otra, y de un trasero a otro. De hecho, a veces cuanto más nos alejamos, mejor comprendemos lo que tenemos en casa; y mejor tratamos todo lo desconocido.

Ipuin kontaketa bat antolatzeko beste egun egoki batzuk:

- Martxoak 20: ahozko narrazioaren eguna
- Martxoak 21: poesiaren eguna; txotxongiloaren eguna.
- Martxoak 27: antzerkiaren nazioarteko eguna (kontaketa arte eszenikoa baita)
- Apirilak 16: ahotsaren eguna.
- Maiatzak 9: Europaren eguna (Europako kultur desberdinetako ipuinak)
- Maiatzak 28: jolasaren nazioarteko eguna (ipuin kontaketa eta jolas saioa izaki)
- Ekainak 25: itsasoko gizon eta emakumeen eguna (itsasoko ipuinak)
- Irailak 30: itzulgintzaren eguna (ipuinak bi hizkuntzetan kontatuz)
- Urriak 4: animalien eguna (animaliei buruzko ipuinak)
- Azaroak 20: umearen eguna

Otros días adecuados para la organización de sesión de cuentos:

- 20 marzo: día narración oral
- 21 marzo: día de la poesía; día del títere
- 27 marzo: día del teatro (narración oral es arte escénica menor)
- 16 abril: día de la voz
- 9 mayo : día de Europa (cuentos de los pueblos de Europa)
- 28 mayo: día del juego (sesión de cuentos y juegos)
- 25 junio: día de los hombres y mujeres del mar (cuentos de mar)
- 30 septiembre: día de la traducción (cuentos contados en dos idiomas)
- 4 octubre: día de los animales (cuentos de animales)
- 20 de noviembre: día del niño/a

-Errepertorio guztietako umeen adina: 4-8 urte

- Edad público para todos los repertorios: 4-8 años más o menos .

-Prezioak kontsultatu! Tarifa bereziak saio kopuru edo garaiaren arabera

/ Consulte precios. Dispongo de tarifas especiales segun número de sesiones o temporada.